

Higiene apur baten defentsan

Euskaldunon Egunkaria, 1991-06-29: 2.

Ez dut ohiturarik prentsako Zuzendariei gutunak bidaltzeko; halere, gaur estreinatuko naiz. Ez bereziki J. Ganboak egunkarikoari bidalitakoak nire aipamen pertsonalik dakarrelako, baina batzutan norberaren alderdikidetzak eta partaidetzak eraginik badu, eta esan nahi diot EAK ere egin duela okerrik, noski, baina ez duela Ganboa jaunak hauenganako dituen ipurtzulokeriak euskaldunen *EGUNKARIA*-n zertan sartu, hau ez baita inoren komun pertsonala.